



MUSIKA

Begirada errusiarra Galiziatik



Musika Hamabostaldian Galiziako Orkestra Sinfonikoa. Zuzendaria: Dima Slobodeniuk. Bakarlaria: Elisabeth Leonskaja (pianoa). Easo Ahots Mistoen Abesbatza. Zuzendaria: Gorka Miranda. Egitarauak: Brahms, Rachmaninov eta Txaikovsky-ren lanak. Kursaal Auditorioan (Donostia), abuztuaren 19an eta 20an.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Ohi bezala, abuztuko bigarren hamabostaldia Musika Hamabostaldian bisitatzen gaituzten orkestra handien garaia da. Orkestra horietako lehena Galiziako Orkestra Sinfonikoa izan da, Espainiako Estatuko formaziorik interesgarrienetakoa. Gainera, Dima Slobodeniuk-ek 2013an zuzendaritza bere gain hartzeak orkestra honentzat ekarri duen bultzada pizgarri nahikoa izan zen abuztuaren 19an eta 20an Kursaal Auditorioan bildu zen publiko guztiarentzat.

Horrez guztiaz gain, bakarleri bikainen presentziak eta errusiar karga handiko programa baten aurkezpenak, bi hitzordu hauek, Musika Hamabostaldiko edizio honetako bi une nagusi bihurtu zituen.

Elisabeth Leonskaja piano-jotzailea-

ren aktuazioa izan zen hilaren 19ko plater nagusia. Pianista mitikoa da, Errusiako eskola onenaren ordezkaria, eta 75 urterekin Brahms-en *Pianorako 2. kontzertua si bemol maiorrean, op. 83* interpretatzeko behar den indarra eta sasoia erakutsi zituen. Bakarlariak kontzertuko pasarte guztiak mimatu zituen. Agian, kasu honetan, orkestraren laguntza izan zen alderdi ahulena, ez espero genuen bezain malguta eta kantabilea.

Hala ere, Dima Slobodeniuk zuzendari errusiarren jenialtasuna Rachmaninov-en *1. Sinfonia re minorrean, op. 13* obran atera zen. Konpositorearen gaztaroko obra da, errusiar tradizio sinfonikoaren ildoari jarraitzen diona, eta Slobodeniuk-ek distira eta dotorezia ateratzen jakin zuen.

Hilaren 20an, Brahms-en bi harribitxi entzun genituen, non protagonismoa Easo Ahots Mistoek Abesbatzak hartu zuen. Bai *Nänie, op. 82* lanak, Schiller-en olerki batean oinarritua, bai *Patuaren abestia 54* obrak, Hölderlin-en lan batean oinarritua, abesbatzaren interpretazio afinatu eta dotorea izan zuten, baina bezperan piano eta orkestrarako kontzertuan gertatu zen bezala, orkestraren zatia nahiko laua eta hotza geratu zen.

Hala ere, publikoaren gozamenerako, Txaikovsky-ren *5. Sinfonia re minorrean, op. 64* obrarekin amaitu zen saioa. Orkestra pletoriko azaldu zen, metal ederrekin. Zuzendari adimentsua topatu genuen, ohi baino bertsio ez hain solemnea egin zuena, baina ñabarduren aldetik oso interesgarria. ●